URTEAN ZEHARREKO XXV. DOMEKEA /B

LAGUNGARRIAK

Sarrera-agurra

Ondo etorri, senideok, urtean zeharreko 25. domekako Liturgia honetara. Jesus Jaunaren irakatsietan murgilduko gaitu, eta gure prestutasuna eskatzen deusku: geure uste eta jakintzan jarraitu gura dogu, ala Jesus Jaunak irakatsi gura deuskuna gura dogu entzun eta gure bizikerea berari egokitu? Ondorioak ez dira bardinak izango. Hori badaki Jesusek, eta aurretiaz jakinazoten deusku. Baina ziurtaturik daukagu haren laguntza. Goazen ospatzera.

Abestia

ZU GABE, JESUS, NORA joango gara gu?
Zuk betiko bizitzako hitzak, Jauna, dituzu.

[1] *Zu gure maisu zaitugu, zu gure gidari*
zure hitza guretzat indar eta argi.

[2] *Maitasunezkoa dogu, Jauna, zure hitza*
Zu zaitugu egia, bidea, bizia!

Agurra

† Jesus Jauna maisu eta lagun dogu. Haren grazia eta bakea zuekin.

—Eta zure espirituarekin.

Damu-otoitza

Jesus Jauna minduta dauka gure epelkeriak eta aldietara egokituta egoteak. Abiatu gaitezan haren errukira:

—Jesus Jauna, jarraitzaile bulartsuak bilatzen duzuzana, *erruki, Jauna*.

—Jesus Jauna, irakatsi egiazkoak emoten deuskuzuzana, *Kristo, erruki*.

—Jesus Jauna, bertanbehera inoiz lagaten ez gaituzuna, *erruki, Jauna*.

Jk 2, 12a. 17-20

Inoiz ez da izan erreza zintzotasunean bizi izatea. Horrexegaitik egin behar da aukeraketea eta landu behar da Jainko esperientzia, askotan negar artean izango bada ere.

St 3, 16—4, 3

Gogorra da Santiagoren berbea entzun beharra izatea, baina bihurtzea bilatzen dauanak ontzat emongo dau.

Mk 9, 30-37

Jesusen asmo eta gurarietatik zein urrun dagozan ikasleen asmoak (eta gureak?)! Zabaldu gaitezan Jesusen esanetara, harrera on eginez. Abestu daigun Aleluia, zutunik.

ESKARIAK

† Jesusek bere ingurura erakarten gaitu irakatsiak izan gaitezan. Etorri daitezala bat gure eskariak haren asmoekaz:

—Eleizearen alde: sinistun katekistak sortu daitezan bere altzoan, Jesusen barri euren bizitzaz emongo dabenak, *egin daigun otoitz*.

Jainko Jauna, zeugan dogu uste ona

—Gurasoen alde, irakastokien alde, irakaslegoaren alde… familiak eta ikastetxeak gizon-emakumeen gogo-bizitza ere landuko daben gure izan daitezan, *egin daigun otoitz*.

—Behartsu, baztertu eta aurrean erabilien alde: aurkitu daien Eukaristiaren mahai inguruan senidetasunez esaten jaken gunea, *egin daigun otoitz*.

—Otoitzean dihardugunok geure

usteetan ez gaitezan geratu, Jesusen kezka, asmo eta irakatsiekin bat eginda, haren jarraitzaile zintzoak izaten ahalegindu gaitezala baino, *egin daigun otoitz*.

† Sinismenaren erregalua egin deuskuzun Jainko Aita: geure egintzetan agertu daigula zuganako esker ona. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
—Amen.

Jaunartzean

Hemen gaituzu, Jauna, ogiaren eske,
bizi behar honetan ahuldu bait gintezke.
Zure gorputz santua hartu nahi genduke:
zu barik bizitzerik ezingo genduke.

Munduak behar badau eguzki-argia,
mendiko abereak, iturri garbia;
besteok nahi badogu barruko bizia
beharrezkoa jaku zeruko ogia.

Jauna, zure grazia lagun dakigula,
ogi hau jan dagigun behar dan bezela;
Ez ahaztu txarrerako jarriak gaozela:
arren, zuzen ta leial bizi gaitezela.

Azkenean

Eroan daigun etxera Jesusen ikasleen

lotsaria: gure asmoak Jesusenekaz bat ez datozela jakitetik sortzen dan lotsaria. Eta, otoitz giroan, bilatu daigun haren esanak ikastea eta gure bizikerea euretara egokitzea, kurutzearen bildurrik barik eta behartsuekin bat eginik.

JESUS MUNDUKO ARGIA
Jesus zinezko egia. Jesus betiko bizia.

1 Jesus Jainko gizona Zuri gure bizia
hartu gure Jaun ona gu garean guztia.

2 Gure bihotz barruan biztu zure argia
gaitezen gu munduan argi Jainkoz betia.